

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

50 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

Borrokak bateratu greba orokor batean!

Langabeziaren eta miseriaren
aurkako alternatiba bakarra
sozialismoa da!

2. Editoriala: Sozialismoaren aldeko borroka da bide bakarra! • 4. EAJk eta PPK hezkuntza publikoa suntsitzen jarraitzen dute. Beharrezkoa da Ikasle Sindikatuak urriaren 21, 22 eta 23rako deitu duen 72 orduko greba orokorra babestea! • 6. Europa: langile klasea eta eskuin muturra • 8. Gasteizko uztailaren 3ko manifestazioa sektore guztietako borrokak elkartzearen alde • 10. Marxismoaren klasikoak: Nazioen autodeterminaziorako eskubidea, V.I. Lenin • 12. Turkia: 300 meatzari baino gehiagoren heriotzaren arduradunak Erdoganen gobernu eta monopolio kapitalistak dira • 16. Euskal Herria: Felipe VI.aren erregimenaren aurkako borroka sozialismoarekin lotuta dago

Sozialismoaren aldeko borroka da bide bakarra!

Hamarkadetan zehar agindu duen erregimen politikoa hautsi egin da. Parlamentuak eta justizia botere ekonomiko handiengandik beregainak diren erakundeak direnaren moduko ideiak, lehen barneraturik egon arren, orain iruzur handi gisa ikusten dira. Eta garrantzitsuena: geroz eta langile eta gazte gehiagok ikusten dituzte gobernuak, eskuinekoak nahiz sozialdemokratak, bankarien eta, orokorrean, kapitalisten interesen alde egiten duten exekutiboen komite huts gisa. Eta kapitalista hauek, inork aukeratu ez dituen eta esku gogorrez gure bizitzak baldintzatzen dituen pribilegiatuen kasta osatzen dute.

Krisi kapitalistako bost urte hauetan protagonista izaten ari diren elementu guztien artean nabarmenena klase arteko borrokaren gorakada izan da. Mobilizazio sozialak tamaina ikaragarria hartu du, eta aurrekari gertukoena 70eko hamarkadako frankismoaren aurkako borrokak dira. Kapital handiaren eta bere gobernuaren eraso guztiek oposizio zabala eduki dute aurrean, kaleetan.

Urte hauetan, langile mugimendua eta gazteria, murrizke-

tek eta kontraerreformek kolpatu dituzten hainbat sektore, langabezia eta kaleratze masiboak jasan dituztenak, gai izan dira mobilizazio eta adierazpen bideak aurkitzeko. Eta hau guztia, hainbat agintari sindikalek greba orokorre jarraipena ez ematen temati segitzen duten arren eta itun soziala eta negoziazioa defendatzen dituzten arren. Agintari sindikal hauek, gobernuak eta patronala “zentsudunak” bihurtu eta aurrera eramaten ari diren ofentsiba “hauen

borondate aldaketarekin” geratu daitekeela planteatzen dute.

Greba orokor arrakastatsuek, LOMCEaren aurkako eta eskola publikoa defendatzeko egindako ikasle greba bikainek, PAHren bitartez aurrera eramandako etxe kaleratzeen aurkako borrokak, lan gatazketan langileen greba mugagabeak eta borrokak... Mobilizazio eredugarri guzti hauek, batzuk aipatzearren, borrokatzea posible dela eta irabaz daitekeela erakutsi dute. Langile klasea bere tradizio ederrenak berreskuratzen ari da: asanblada demokratikoak, erresistentzia kuttak, elkartasuna lortzeko mobilizazioak zabaltzea, greba mugagabeak... Garaitu daiteke eskuina, bai noski, baina tinko borrokatzen bada, indartsu, mobilizazioak elkartzen badira eta egoerak eskatzen duen alturan dagoen programa bat defendatzen bada.

LANGILE KLASA DA ERALDAKETA SOZIALAREN MOTORRA



PPren, EAJren eta UPNren gobernuak etengabe saiatu dira protesta soziala kriminalizatzen errepresio polizial basatienaren bitartez edota askatasun eta eskubide demokratikoak erasotzen dituzten legeekin. Hala ere, errepresioak ezin du borroka geratu. Aitzitik, borroken erradikalizazioak eta geroz eta gehiago diren greba mugagabeek argi uzten dute, alde batetik, langileen sektore zabalek beren eskubideak defendatzeko amaierara arte iristeko duten determinazioa eta,

bestetik, patronalaren erasokortasunaren aurrean mokatzen sindikalismoaren porrota. Zeinen ikasgai izugarria beren akademietako atril erosoetatik eta egunkarietako zutabeetatik langile klasea ez zela existitzen eta, noski, ez zela subjektu iraultzailea zioten horientzat!

Goraka doan dinamika baten aurrean gaude, bere nahitazeko gorakada eta beherakadekin, baina garatzen jarraituko duena. Hori eragingo dute PPK, EAJk eta UPNk zerrendan dauzkaten murrizketa berriek, eta baita mugimenduek eta garaipenetatik nahiz porrotetatik ateratzen diren ikasgaiak ere.

Korrante orokorra aukera iraultzaile eta sozialista bat eskala handian garatzearen aldekoa da. Honen helburua eskuineko gobernuen amaitzea baino askoz haratago doa. Ez da nahikoa bozkatzea eta eskuina gobernuetatik kentzea, hau beharrezkoa bada ere. Beharrezkoa da parlamentuan, baina batez ere kalean, modu tinco eta kontsekuente batez langileen interesak eta kapitalismoak zapalduz daukan gehiengo sozialarenak defendatuko dituen proiektu politikoa altxatzea.

SOZIALISMOAREN ALDEKO BORROKA ESTRATEGIA

Agerian dago langile mugimenduan eta bere erakundeetan posizio politikoen espektro zabala dagoela. Posizio erreformistenetatik eta sozialdemokratiatik gertuen daudenetatik borrokarekin eta eraldaketa sozialarekin kontsekuenteenak diren sektoreetara arte. Sozialismo iraultzailearen ideiak defendatzen ditugun Euskal Herria Sozialistako gazte eta langileak ahaleginak batzen jarraituko dugu langile mugimenduan eta bere erakundeetan sozialismoaren aldeko borroka antolatu eta kontzientea bultzatzea beharrezkoa dela defendatzen.

Beharrezkoa da programa sozialistaren defentsan eta langile klasearen indarrean, borroka gaitasunean eta sormenean oinarrituko den estrategia. Pentsatzen dugu Sortuko, LABeko edo ELAko zuzendaritzek argi utzi behar dutela ez dutela onartzen sistema kapitalista honen logika; sektore finantzariaren eta monopolio handien (banku, elek-

trizitate, garraio, telekomunikazio...) langileen kontrol demokratikopeko nazionalizazioa defendatzen dutela; etxe kaleratze guztien aurka eta banka handiaren jabetza diren etxebizitzaren multzoaren desjabetzearen alde borrokatzen dutela, horiek alokairu sozialean ezartzeko; hezkuntzaren kontraerreforma frankistaren (LOMCE) aurkako eta osasungintzaren pribatizazioaren aurkako mobilizazioaren buruan jartzen direla; greba orokorren jarraipena eskatzen dutela kaleratze masiboei aurre egiteko; 35 orduko lan astearen alde daudela...

Sortu, LAB eta ELAko zuzendaritzek beste mota bateko gizarte bat behar dugula seinala dezakete eta seinالاتu behar dute, monopolio handi batzuen, milioiun eta bankarien gutxiengoaren diktaduratik askaturik egongo dena. Gizarte sozialista honen aldeko borroka ez da asmo oneko utopia bat, gizateriaren konkistak mantentzeko presazko behar bat baizik. Hori da langileek eta gazteek Euskal Herri aske eta sozialista bat lortzeko nahi dugun eta behar dugun bidea.



EAJk eta PPk hezkuntza publikoa suntsitzen jarraitzen dute

Beharrezkoa da Ikasle Sindikatuak urriaren 21, 22 eta 23rako deitu duen 72 orduko greba orokorra babestea!

Hasiera batean, EAJk Wert ministroaren kontraerreforma praktikan jarriko ez zuela iragarri bazuen ere, ekainean Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak irailetik aurrera LOMCEa ezartzeko agindua eman zuen. "Behartuta" egin duela esan arren, garbi dago EAJk eta PPk klase berberaren interesak babesten dituztela.

URTZI REGUERO

2013-2014 ikasturtea oso latz hasi zen ikasleentzat. Beken onuradun izandako ikasleak egoera ekonomiko oso larrian egon ziren ez baitzuten berandura arte beren beka kobratu; eta klaseak bukatzeaz zirela bekek mila eta bi mila euroko bitarteko murrizketa jasango zutela iragarri zuen ministroak. Horrela, agerian geratu zen Wertek esandako beste gezur bat gehiago; alegia, beken inbertsioan ez da murrizketarik egon. Gazte askok beren ikasketak utzi behar izan dituzte dirurik ez izateagatik edo gurasoak langabezian edukitzeagatik;

are gehiago, familia asko zorpeturik daude beren seme-alabei etorkizuna bermatzen saiatzeagatik.

Beka kopuruaren murrizketa Aste Santuan iragarri arren edo beren beka sistema elitistaren defentsa kanpaina azterketa garai betean egin arren, ez zien askorako balio izan. Bekak bezalako konkista garrantzitsuen aldeko presio sozialak eraginda errektoreek beraiek neurri kaltegarri hau atzera botatzeko eskatuz agerraldia egin zuten; ordura arte "baliabiderik gabeko ikaslea 'apadrinatzea'" defendatzen zuten. 15 egunetan ikasleek egindako eten-gabeko salaketa eta presio honek guztiak lortu zuen ordaintzeko

falta ziren ehunka milioi euroak 24 orduren bueltan ordaintzea.

Hau nahikoa ez bada ere, PPren gobernuak duen ahultasunaren eta ikasle mugimenduaren indarraren adibide bat gehiago da. Beste behin ikusi dugu borroka merezi duela; eta bekak itzultzea lortu bada, beken dekretu klasista, LOMCE eta gainerako murrizketa guztiak ere atzera bota daitezke zalantzarik gabe.

HAUR HEZKUNTZAN ETA BATXILERGOAN BERRORDAINKETA

Wertek ez du hezkuntza publikoaren aurkako gerra amaitu. Maiztzean Kongresuan egindako agerraldi batean adierazi zuen ez zuela baztertzeko irakaskuntza ez derri-gorrezkoan berrordainketa ezartzeko sistemari "berdintasuna eta justizia" emateko. Hau da, tasak inposatu nahi ditu haur hezkuntzan eta batxilergoan. Ikaragarria da elitista handiuste honen zinismoa. Unibertsitateko tasa igoerarekin, beken dekretuarekin eta LOMCEarekin ikusi dugunez, PPren helburua da aberatsen seme-alabek soilik izatea kalitatezko hezkuntzarako sarbidea frankismo garaian gertatzen zen bezala.

Hezkuntza publikoa suntsitzen ari diren bitartean, ez dute inongo arazorik sekta ultrasosialistaren itunpeko ikastetxeak irekitzeko Madrileko leku batzuetan gertatu den bezala. Pribatuentzat bada dirua, zuzenean gure poltsikotik aterea. Hau da PPren justifi-





zia: dirua hezkuntza pribatuko eta itunpeko hezkuntzako enpresariei ematea eta bitartean baliabiderik ez duten ikasleak sistematik bidaltzea.

MURRIZKETAK EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN

Ikasturtea bukatzeaz zela, Iñaki Goirizelaia EHU/UPVko errektoreak unibertsitateak inoiz izan duen murrizketarik basatienak iragarri zituen. “Berrantolatzea” eta “unibertsitatearen lehiakortasuna eta erakargarritasuna hobetzea” aitzakiatzat hartuta, hainbat fakultate itxiko zituzketen; ondorioz 31 fakultateetatik 11 itxiko lirakeke, 4 Bizkaian, beste 4 Gipuzkoan eta 3 Araban. Neurri hau titulazio batzuk kentzeko eta ekonomikoki onuragarri direnak uzteko lehen pausoa da. Azken batean, Wert ministro frankistak estatutu osoan inposatu nahi duen eredu berberari erantzuten dio.

Eraso berri hau lehendik izandako murrizketei gehitu behar zaie. Eusko Jaurlaritzaren 2011-2014 bitarteko Unibertsitate Planak %1,2ko inbertsioa aurreikusten bazuen ere (Europako beste herrialdeetan %1,6koa da) EAJk 90 milioi euro murriztu dizkio EAEko goi-mailako hezkuntzari.

Wertek kontraerreformarekin batera, murrizketa hauek unibertsitate publikoa suntsitzen ari dira, irakasle eta ikertzaileen lan baldintzak okertzen ari dira sol-

data murrizketak edo izozteak direla eta; %20 jaitsi da eros-ahalmena. Prekarietatea igo da eta langile kopurua jaitsi; erretiratu diren irakasleen zein bajaran dauden postuak ez dira bete eta, ondorioz, lan karga igo da. Ikasleek unibertsitate tasa igoera etengabea jasan behar izan dute: azken lau urteetan kredituaren prezioa %30 igo da. Hau gutxi baltz, beketako dirua izoztuta dago eta ikasketetan laguntzeko bideratutako dirulaguntzak murriztu dituzte. Beken diru kantitatea ez igotzeaz gain master ikasketak egiteko laguntzak ere murriztu eta zailtasun gehiago jarri dituzte; hori dela eta, ehunka ikasle gelditu dira bekarik gabe.

Egunetik egunera diru gutxiago dago inbertsio publikorako, aldez, finantzazio pribatua hazten ari da lan prekarietatea areagotuz, unibertsitate tasak igoz eta langileen seme-alaben sarbidea oztopatuz. Iazko irailean Iñaki Goirizelaia EHU/UPVko errektoreak aitortu zuen unibertsitateak ez duela dirurik irakasle eta ikertzaile berriak kontratatatzeko eta egokia dela “baliabide pribatuak erakartzea” eta norbanako eta enpresa pribatuen “donazioak” onartzea. Honekin atea irekitzen zaio unibertsitate publikoaren pribatizazioari.

Iragarritako murrizketa berri honek irakasle eta ikertzaileen kaleratzea ekarriko du; eta ondorioz langileen lan karga eta ikasleen masifikazioa areagotuko dira

fakultateetan. Lehendik murriztu diren baliabideekin mantendu beharko dira ikasleak eta nabarmen jaitsiko da hezkuntzaren kalitatea.

Eusko Jaurlaritzaren, hau da EAJren, politika PP aurrera eramaten ari denaren berdina da: murrizketa osasun eta hezkuntza publikoan. Erasoa hauen helburua ere berdina da: aberatsek baka-rrik izatea kalitatezko hezkuntzarako aukera.

HEZKUNTZA PUBLIKOAREN ALDEKO BORROKA DA BIDE BAKARRA!

Azken ikasturteetako ikasle grebetan gazte eta ikasleek mobilizazioen ikasgai baliagarri bat eman dute: borroka da bide bakarra. Urte hauetan klase arteko borrokaren gorakada nabarmena bizi-tzen ari gara, gatazkak ugaritu egin dira arlo guztietan eta borrokaren bidez lortutako adibide andana ditugu. Garbi dago erasoak atzera botatzeko eta hezkuntza publikoa defendatzeko ere modu bakarra borroka dela.

Horregatik, oso positiboa ikusten dugu Ikasle Sindikatuak urriaren 21, 22 eta 23rako deitu duen 72 orduko greba orokorra. Halaber, beharrezko ikusten dugu Ikasle Abertzaleak ere hiru egun hauetarako deia egitea martxoaren 26 eta 27ko ikasle greben bideari jarraituz. Orduan ikusi zen bezala, ikasleek batera borrokatuta indarra biderkatu egiten da. Ez hori bakarrik, uste dugu beharrezko dela, eta horretarako deia luzatzen diegu, hezkuntzako langileen sindikatuak, LAB, ELA, STEE-EILAS, CCOO eta UGTk, eta guraso elkarteek borroka egun hauekin bat egin eta hezkuntza komunitate osoko greba deitzea. Langile eta ikasleen batasuna beharrezkoa da eraso hauei aurre egiteko, eta indarra bateratuta posible da garaipena lortzea.

Europa: langile klasea eta eskuin muturra

Pasa den maiatzaren 25eko hauteskundeek emaitzek antzeko joera politikoak markatu zituen Europar Batasuneko herrialde guztietan. Nahiz eta komunikabide burgesek parte hartzearen gorakada nabarmena azpimarratu, egia dena da abstentzioa masiboa izan zela % 56,1arekin; 2009koekin alderatuz parte hartzearen gorakada puntu bat baino gutxiagokoa izan zen. Honek guztiak agerian utzi du Europako instituzio kapitalistek gizartean duten deskreditua, gaur egun langileen eskubide sozialak suntsitzearen arduradun bezala ikusten baitira.

AITZOL ARRIBILAGA

Orokorrean gobernu ezberdinetako alderdiak zigortuak izan ziren, bai eskuinekoak baita sozialdemokratak ere, guztiak murrizketa politiken bultzatzaileak. Oinarritzko beste joera bat eskuinera eta ezkerreara eman zen polarizazioa izan zen, tendentzia horien erakusle nagusiak izan ziren Grezian Syriza eta Estatu frantziarrean Fronte Nazionalea. Prentsa burgesak modu erabat interesatuan ez zuen greziar ezkerrek lortutako garaipen historikoa ia aipatu ere egin, eta protagonismo osoa Estatu frantziarrean, Britainia Handian eta beste herrialde batzuetan eskuin muturrak izan zuen gorakadari eman zion. Beraien asmoa Europar biraketa sozial erreakzionario bat gertatu denaren mamua zabaltzea da; noski, langile klasea demoralizatu eta bere indarretan konfiantza galtzea helburu duena.

SYRIZA ETA KAPITALISMOAREN KRISIA

Azken urteetan milioika pertsonen begiradak Greziara zuzenduta egon dira. Europar Batasunaren eta burgesia greziarraren murrizketa plan basatien aurka langile eta gazte greziarren erre-

sistentziak, mobilizazio masibo eta etengabeekin batera, inspirazio iturri den izaera iraultzailearen krisi politikoa eragin du. Klase arteko borrokaren gorakada honen ondorioz, garrantzia ikaragarria duen gertaera politikoa izan da: Europaren historia gertukoenean, lehen aldiz sozialdemokraziaren ezkerretara dagoen alderdi batek hauteskunde orokor batzuk irabazi zituen, eta masen sektore handi batek sistema kapitalistaren amaiera iraultzaile bati babesla adierazi zion. Ez zen kasualitatea Grezia izatea parte hartzea gehien hazi zen herrialdea (5,5 puntu 2009arekin alderatuz). Syriza izan zen bozka gehien jaso zituen alderdia, %26,6, eskuineko Demokrazia Berria (DB) alderdia ia lau punturekin gainditu zuen. KKEren (Alderdi Komunista) bozkekin, %6,07, sozialdemokraziaren ezkerretara dauden ezkerreko alderdiek %33 lortu zuten: DBrekin gobernuan dagoen PASOKEk ikara-

garritzko porrota jaso zuen, bozken %8 bakarrik (2009an %36,65). To Potami (Ibaia) Alderdi sozialdemokrata berriak, hain juxtu hauteskunde horietarako sortu zenak, ez zuen PASOKEk galdu zituen bozkek bereganatzerik izan.

Syriaren emaitza bikainak Atican izandako garaipenarekin are garrantzitsuago bihurtu ziren herrialdeko zonalderik garrantzitsueneko gobernuak lortu baitzuen eta bertan bizi da biztanleriaren herena (Europako hauteskundeekin batera izan zen Greziako udaletxeetako eta lurraldeetako hauteskunde bigarren itzulia). Garaipen hau are eta esanguratsuagoa da Syriak PASOKEk eta DBak batera aurkeztu zuten hautagai baten aurka egin zuela kontuan hartzen badugu. KKEren zuzendaritzak berriaz, posizio erabat sektarioa mantenduz, ez zuen alderdi bakar baten aldeko botoa eskatu.

SOZIALDEMOKRAZIAREN KRISIA ETA ALTERNATIBA SOZIALISTA IRAULTZAILE BATERAKO AUKERAK

Greziako hurrengo hauteskunde orokorreki begira, Syriaren garaipenak eskuina garaitu eta langileen gobernu bat eratzeako aukera zabaltzen du, murrizketei aurre egin eta gizartearen eraldaketa sozialistan pausoak eman ditzakeena. Aldaketa hau gertatuko balitz, gainerako herrialdeetan izango lukeen eragina ikaragarria izango litzateke. Greziako eta Estatu espainiarreko hauteskundeetan izan den ezkerreko biraren uztarria masen mobilizazio eta parte hartze aktiboa da. Zalantzarik gabe Grezian maila altuago batean dago, momentuz behintzat.

Estatu espainiarrean edo Grezian bezala sozialdemokraziaren ezkerretara dauden Europako



beste alderdi batzuk emaitza hain onak lortu ez izana hainbat arrazoi-
ren ondorio da. Ukaezina da oroko-
rrean klase arteko borroka eta pola-
rizazio politikoa hazi egin dela, bai-
na hauteskundeetako adierazpenek
ez dute zertan berdinak izan eta ba-
tera gertatu herrialde ezberdinetan.
Gertaera sozialen erritmo ezberdi-
nak edo beste hainbat faktore poli-
tikok eragina dute; adibidez aurkez-
ten diren alderdien ibilbidea etab.
Estatu frantziarreko kasuan, adibi-
dez, Alderdi Komunista Frantsesak
eta Ezkerreko Alderdiak (Melenchon
buru duen Alderdi Sozialistaren za-
tiketa) osatzen zuten Ezkerreko Fron-
teak (Front de Gauche, FdG), boz-
ken %6,5 lortu zuen (2009an %6),
helburu zuten %10etik oso urrun.
2012ko presidentetzarako hautes-
kundeetan parte hartzea maiatzar-
en 25eko hauteskundeetan baino
%30 handiagoa izan zen eta bozken
%11,1 lortu zuen.

Sarkozyren porrota eta Hollan-
den garaipena FdGren emaitza
onekin batera, Estatu frantziarrak
2010ean bizi izan zituen masen mo-
bilizazio garrantzitsuen ondorio
izan zen. Testuinguru hartan FdG-
ren bilera eta mitinak masiboak zi-
ren eta ilusiozko airea arnasten
zen. Erakunde hau aldaketa sakon
bati lotua ikusten zen. Baina Alder-
di Komunistaren zuzendaritzaren
norabide aldaketak beraianengan ja-
rrita zeuden esperantzak alden-
du dituzte hein batean: 2014ko udal hau-
teskundeetan Alderdi Sozialistare-
kin hitzartu zuen, nahiz eta Hollan-
den gobernuak murrizketak onartzen
ari dagoeneko. Frontea osatzen duen
beste alderdiak, Ezkerreko Alder-
diak alegia, bere aliantzak Berdee-
tara zuzentzeak ez zituen gauzak
hobetu, hauek ere Hollanden gober-
nuarekin inplikaturik baitzeuden.

ESKUIN MUTURRAREN GORAKADA

Greziar ezkerrek lortutako garai-
pena gertakari garrantzitsuena be-
zala nabarmentzea eskuin mutu-
rraren alderdiek lortutako babesa
gutxiestea da? Inolaz ere ez. Gre-



zian Egunsenti Urrekara (EU) be-
zalako alderdi faxisten garapena
abisu bat da: maiatzaren 25ean mi-
lioierdi boto lortu zituen, %9,38.
Estatu aparatua burgesarekin eta
klase dominatzailearekin harrema-
nak dituen eta sistemak berak sor-
tutako deskonposizio sozialetik hor-
nizten den talde hau ezkerreko sek-
tore antolatua eta aurreratuenaren
aurka egiteko batailoia bezala era-
biltzen dute. Estatu frantziarreko
Fronte Nazionale (FN) eskuin mu-
turreko alderdiak ezberdintasun
batzuk ditu Egunsenti Urrekare-
kin, besteak beste nazien perfila ez
izatea zaindu du. FNk bere ideario
arrazista alboratu gabe, kanpainar-
en indarra, nahiz eta era demago-
giko batean izan, ongizate estatua-
ren eta gai sozialen defentsan oina-
rritu du, bere burua “antisistema”
bezala errebindikatu du, Europar
Batasunaren burokraziari kritika
egin dio, etab.; hori guztia erretori-
ka nazionalista batekin bustiz
(kanpainaren leloa “Ez Bruselari,
bai Frantziari” izan zen), babes
ekonomiko gehiago eskatuz, euro-
tik ateratzea aldarrikatuz...

Marine Le Penen diskurtsoak
(errealitatean kapitalismoa bal-
dintzatzen ez duenak) sistemareki-
ko gorrotoaren sentimenduekin ko-
nektatzeak, gizartearen oso zabaldua
dagoena eta politikoki atzeratu-
en diren sektoreei ere eragiten
dienenak, ez du esan nahi bere garai-
pena gutxietsi daitekeenik. Erakun-
de horrek langile klasearentzat arris-
kua dakar. Baina hori bai, akatsa
izango litzateke Le Penek lortutako

emaitzek langile klasea ahul eta
garaituta dagoela pentsatzea, baita
Estatu frantziarrean eta Britainia
Handian kontrairaultza garaile de-
la eta faxismoa berehala datorrela
pentsatzea. Europako herrialde guz-
tietan langile klasearen indarra eta
bere borrokarako eta antolatze-
ko gaitasuna askoz handiagoa da gaur
egun eskuin muturrak lor dezakeen
babesa baino.

EGOERA EZEGONKORRA

Herrialde batzuetan momentuko osa-
garria den eskuin muturreko era-
kundearen emaitzak puztea langile
mugimenduari begietara hondarra
botatzea da. Estatu frantziarrean
2012ko hauteskundeetan bira han-
di bat eman zen ezkerreko mobiliza-
zio sozial harrigarrien ondorioz, eta
eskuina baztertzea eta Sarkozy ga-
raitzea lortu zituen. Oraingoan, al-
diz, ezkerrearen desmobilizazioa
izan da nagusitu dena, Alderdi So-
zialista Frantsesaren gobernuak al-
daketarako zeuden ilusioak zapuz-
tearen eta zuzendaritza sindikalek
patronalarekin egindako akordio-
en eraginez. Eskuin muturraren gora-
kada polarizazio sozial ikaragarriar-
en ondorio da, baina baita sozial-
demokraziaren dekadentziaren on-
dorio ere. Hauteskundeak argazki
finko bat bakarrik dira testuinguru
erabat aldakorrean. Egoera oso eze-
gonkorra da eta konfrontazio sozia-
la, masa mobilizazio handiak eta
hauen isla politikoa lehenago edo
beranduago eguneko gai ordenan
jarriko da Europa osoan.

Gasteizko uztailaren 3ko manifestazioa sektore guztietako borrokak elkartzearen alde

Ekainaren 14an Bilbon aurkeztu zen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta. Proposamenen lanketan hainbat erakunde sindikal eta kolektibo sozialek parte hartu dute. Honen sustatzaileen arabera, ekimen honen helburua borroka guztiak elkartzea eta beste eredu ekonomiko eta sozial baten alde apustu egitea da. Helburu honetan bultzatu genuen uztailaren 3ko Gasteizko manifestazioa.

J.L. CARIÑANOS
Gasteizko Langabetuen
Batzarra

Langileen eta gizarteko sektore zapalduenen interesen defentsarako oinarritutakoak diren aspektu asko jasotzen ditu Eskubide Sozialen Kartak: etxebizitza duina denontzat, alokairu sozialera zuzendutako etxebizitza parke publiko bat eskainiz bizikidetzaren unitatearen sarreren %15a gainditu gabe; lan duina izateko eskubidea; langabezia sari mugagabea egoera horrek dirauen bitartean; osasun sistema publiko, unibertsal eta doakoa; kalitatezko zerbitzu sozialen sare publiko eta unibertsala...

Orain, behin aldarrikapen hauek guztiak planteatuta, hauek defendatzeko garaia dator, borroka eraginkor bat izango duen programa baten bitartez. Horretarako, gorantz joango den mobilizazio egutegi bat landu beharra dago, eremu ezberdinetan ematen ari diren borroka partzialak biltzeko eta bateratzeko. Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan erakun-

de eta eragile sozial askok parte hartu dute, eta borroka plan hau aurrera ateratzeko ere beharrezkoa da denen batasuna.

Horrela egin zen Madrilen martxoaren 22an duintasunaren martxa deitutakoan. 2 milioi langilek hartu zuten parte. Eragile askok beren indarrak elkartu zituzten "ogia, etxebizitza eta lana" lelopean. Mobilizazio hau oso indartsua izan zen eta garbi erakutsi zuen nolako potentziala duen langile klaseak bere indarrak elkartzen baditu.

Zoritzarrez, Euskal Herrian aspaldi honetan ez dugu ikusi maila honetako mobilizaziorik kapitalisten erasoaren aurka. Eta hori ez da langileek indarrak elkartzeko gogo faltagatik. Sindikatueta-ko zuzendaritzek ardura handia dute gaur egun sektore guztietan ematen ari diren borrokak bateratzeko: sektore publikoan osasunean eta hezkuntzan edo sektore pribatuan industrian, eraikuntzan eta zerbitzuetan. Euskal Herriko sindikatueta-ko zuzendaritzek eragile sindikalak eta ezkertiarak elkartuko lituzkeen fronte baten sorrera bultzatu beharko lukete, langileen aldarrikapenak defendatzeko eta borroka guztiak elkartzeko. Eskuina garaitzeko eta murrizketa guztiak atzera botatzeko gai izango litzatekeen frontea. Hori da Eskubide Sozialen Kartan onartutako programa defendatzeko modu bakarra.

Iaz, enpresa komiteak eta eragile sozialak bildu zituen plata-





forma bat sortu zen Araban eta hainbat manifestazio bateratu antolatu zituen. Gasteizko Langabetuen Batzarra mugimendu honetatik sortu zen eta hasieratik bere estrategia nagusia langile klasearen ekintza bateratua izan zen. Helburu honetan, Langabetuen Batzar honek kolektibo sozial, sindikal eta ezkertiarren manifestazio bateratua antolatzea proposatu zuen uztailaren 3rako. Beste hainbat kolektibo eta erakunderen artean hauek eman zioten babes proposamen honi: Kaleratzeak Stop Araba, Pensionistas, Afectados por las aportaciones a Eroski y Fagor, Ikasle Sindikatua, Ezker Anitza, Podemos - Ahal Dugu, Alternatiba, Euskal Herria Sozialista aldizkaria, Partido Comunista de Euskadi/EPK, Emakume Langilearen Defentsan, BAT sindikatua, HOAC, SOS Racismo Araba, Ongi Etorri, Deshazkundera Gasteiz... Hirian dauden borroka sakabanatu ugariak bateratzea zen asmoa eta honekin batera Laminaciones Arreguiko langileen borroka babestea, zeinak orain dela bi urte baino gehiagotik ostegunero mobilizatzen ari diren.

Langile hauen borroka eredu-garria da hiriko langile klase guztiarentzat. Beren borroka fabrikako mugetatik haratago doa. Lan erreformaren eta prekariza-

zioaren aurkako borroka da. Horregatik, garrantzitsua zen hiriko langile guztiek eta eragile sozialek manifestazio honetan parte hartzea. Honegatik guztiatik, gure ustez ELA, LAB eta Sortuko zuzendaritzek akats handia egin dute manifestazio hau ez babesten, kontuan hartuta gainera gatazka honetan beren afiliatuak ere badaudela. Laminaciones Arreguiko borroka aurrera egiteko beharrezkoa da gatazka arazoe-kin dauden beste enpresetara zabaltzea (Cegasa, Condesa, Aernova, Alestis, Sidenor Gerdau, Novacero, Eitb edo Bideberri), eta beste enpresa komiteen eta orokorrean gizarte osoaren babes biltzea. Estrategia hau jarraitzen bada, gatazkarik ez litzateke geratuko isolatuta eta borrokan dagoen langile klase osoa inplikatu ahalko litzateke, honen kontzientzia maila eta bere indarrean

duen konfiantza handituz. Modu honetan posible izango litzateke langileen aurkako erasoei eta murrizketei aurre egitea eta PP eta EAJren gobernuak botatzea eta benetako programa sozialista bat defendatuko luketen ezkerreko gobernuetara aldatzea.

Uztailaren 3ko manifestazioan 500 pertsona inguru bildu ginen Laminaciones Arreguiko langileen borroka babesteko helburuarekin eta "ogia, etxebizitza, lana eta Eskubide Sozialen Karta" lemapean. Gure ustez aurrera pauso garrantzitsua izan zen borroka bateratzeko helburuan.

Noski, badaude baldintzak mobilizazio masiboak eta bateratuak antolatzeke, baina hori lortzeko ardura nagusia sindikatuetakozuzendaritzek dute. Euskal Herriko zatiketa sindikala oso kaltegarria da langileentzat. Oinarritzekoa iruditzen zaigu sindikatuak, kolektibo sozialek eta ezkerreko indarrek lan egitea Ezkerreko Fronte zabal bat sortzeko, EAJ, UPN eta PP garaitzeko Ezkerreko Frontea.

Uztailaren 3ko manifestazio honen bultzatzaile izan zen Gasteizko Langabetuen Batzarretik eskerrak eman nahi dizkiegu ekintza bateratu bat bultzatzeko iniziatiba hau babestu zuten kolektibo guztiei. Jarri genuen helburuetako bat lortzeko pausoa izatea espero dugu: Euskal Herriko sindikatu guztien babes lortzea.



Marxismoaren klasikoak: *Nazioen autodeterminaziorako* *eskubidea, V. I. Lenin*

Orain dela 100 urte hain justu, Leninek Nazioen autodeterminaziorako eskubidea idatzi zuen 1914ko otsaila eta maiatza bitartean, langile mugimendu errusiarraren gorakada betean. Prozesu hau eten egin zen, aldi batez, Lehen Mundu Gerraren hasierarekin, liburua amaitu eta hilabete gutxira; baina berriro piztu zen 1917eko otsailean erregimen tsaristaren erorketa eraginez. Leninek oso argi zeukan boltxebikeek arazo nazionalaren inguruan zuten posizioaren baitan egongo zela, funtsezko beste puntu batzuekin batera, garatzen ari zen iraultzaren arrakasta.

IKER OTERMIN

Urte mordoa igaro arren, idatzi honek gaurkotasun harri-garria mantentzen du, batez ere bi funtsezko arrazoiengatik. Lehenik eta behin, egungo krisi kapitalistak, klase arteko borrokaren gorakadarekin batera, arazo nazionalaren areagotzea eragiten du. Inperialismoen arteko tentsioak, esplotazio neokolonialak larriagotzea eta estatu plurinazionalen barnean joera zentrifugoak azkartzea egunerokotasun osoko fenomenoak dira.

Bigarrenik, testuak mantentzen duen gaurkotasuna zuzenean loturik dago testuak berak duen helburuarekin: arazo nazionalari eta honek klase arteko borrokarekin duen erlazioari dagokionez marxismoaren oinarri teorikoak, metodologikoak eta programatikoak finkatzen ditu, honela gazteriaren eta langile klasearen sektore aurreratueni orientazio politiko sendo bat emateko.

ARAZO NAZIONALA ERRUSIAKO IRAULTZAN

Leninen eta boltxebikeen aurka idatzi duten eta idazten jarraitzen duten historialari burges gehienek zentralista burugor eta konpultsibo gisa aurkezten saiatzera jotzen dute; errealitatearekin inolako zerikusirik

gabe ordea. Tsarraren inperioa oso urrun zegoen nazionalki homogeneoa izatetik. Bere batasuna, Errusiako burgesiaren eta kapitalismoaren atzerapen historikoa zela eta, Errusia handiko estatu absolutistaren zapalkuntza nazionalan oinarritu zen. Leninek azaldu zuen bezala, Errusia nazioen kartzela bat zen. Nahiz eta inperioko herritarren gehiengoa errusiarra ez izan —ukraniarrak, poloniarak, finlandiarrak, lituaniarak, letoniarak, judutarrak, musulmanak, tartaroak, Kaukasoko herriak, etab.— errusiera eskolan, armadan eta, noski, administrazio guztian inposatzen zen; aldi berean, eliza ortodoxoak ere errusifikazio hori bermatzen zuen, tsarismoaren “polizia izpiritual” gisa.


1914ko gerra inperialistan Errusiaren parte hartzearekin are gehiago gogortu zen zapalkuntza nazionala: nazio zapalduetako eskubide demokratikoen aurkako errepresio hedatua, ekintzaileen atxilotetak eta erailketak, biztanleria autoktonoaren kanporatze masiboak, edozein prentsa nazionalen erabateko galaraztea; dena areagotu zen. Baldintza horietan saihestezina zen tsarismoaren erortzarekin eta iraultzaren hasierarekin, aldarrikapen demokratiko nazionalak indar handia hartzea izaera sozialeko beste eskakizun demokratiko orokorrekin elkarturik. Prozesu hori jada

gertatu zen 1905ean eta berriz agertu zen 1917an.

Zapalkuntza nazionalaren aurkako borroka irmorik eman gabe eta Nazioen autodeterminaziorako eskubidea idatziak oinarri duen programa hori gabe, ezinezkoa izango zitzaitekeen boltxebikeentzat nazio zapalduetako masen konfiantza irabaztea iraultza sozialistaren eginkizunerako —gehienak nekazariak ziren— eta, beraz, ez zitzaitekeen garaipena lortuko. Egia esan, Leninek arazo nazionalaren inguruan planteatu zituen tesiek praktikaren proba gainditu zuten. Arrazoi guztiarekin, Trotskyk bere Errusiako Iraultzaren Historia idazlanean arazo nazionalari eskainiriko atalean honakoa esan zuen: “Errusia sobietarraren patua edozein izanik ere (...) Leninen nazio politika betirako sartuko da gizate-riaren ondarean”.

HERRI BATEK EZIN DU ASKE IZAN BESTE BAT ZAPALTZEN BADU

Leninen testuaren hasiera Rosa Luxemburgok boltxebikeen programaren 9. puntuarekin duen polemikatik abiatzen da, hau da, autodeterminazio eskubidea defendatzen duen puntutik. Ezadostasunaren oinarria honakoa zen: Rosa Luxemburgok aldarrikapen horrek burgesia poloniarra-



ren interes nazionalistei laguntzen ziela interpretatzen zuen bitartean, Leninek kontrakoa argumentatzen du: autodeterminazio eskubidea defendatzea, programaren beste puntuei loturik, modurik hoberena da nazio zapalduetako masen artean, langile eta nekazariengan, nazionalismo burgesak duen eraginari aurre egiteko. Leninek ulertzen zuen Rosaren posizioa nazio zapalduko nazionalismoaren aurkako borroka politiko gogorraren testuinguruan, langile alderdi benetan marxista bat erakitzeak zekarren presioagatik zertorrela, baina argitasunez seinaltatu zuen egiten ari zen akatsa.

Zapalkuntza nazionalako benetako egoera dagoenean, egoera hau gutxiestea edo jaramonik ez egitea, nahiz eta internazionalismoaren defentsatik abiatuz egin, kasurik hobereanean eskubide demokratiko nazionalen defentsaren bandera nazio zapalduko burgesiari entregatzera darabera, eta kasurik okerreanean nazio zapaltzaileko burgesiaren posizio berean erortzera. Leninentzat, autodeterminazio eskubidearen defentsak oinarritzko heziketa lana betetzen zuen, batez ere nazionalitate zapaltzaileko langileei eta nekazariei dagokienez; kasu honetan, Errusiarrak. “Akaso, aske izan al daiteke beste herriak zapaltzen dituen herri bat? Herritar errusiarren askatasunerako interesek zapalkuntza honen aurka borrokatzea eskatzen dute. Historia luzeak, nazio zapalduetako mugimenduen errepresioaren historia sekularrak, errepresio horren propaganda sistematikoak klase ‘altuen’ eskutik, oztopo handiak sortu ditu herri errusiarraren beraren askatasunerako eginkizunarentzat beren aurreiritzietan, etab.”, azpimarratzen du Leninek testuan.

Hala ere, Leninen autodeterminaziorako eskubidearen defentsa, banatzeko eskubidea barne hartzen duena, arazo nazionalaren inguruan zuen posizioaren zati bat besterik ez zen. Garrantzitsua da azpimarratzea autodeterminaziorako eskubideak Leninentzat ez zuela esan nahi kasu guztietan independentzia bultzatzea. Boltxebikeek modu argi eta tinko batean borrokatzen zuten edozein zapalkuntza nazionalen aurka eta, era



berean, langile klasearen batasun handienaren alde. Leninek liburuan nabarmentzen du Errusian “batera borrokatzen zutela eta borrokatu behar zutela nazio zapalduetako proletarioak eta nazio zapaltzaileko proletarioak. Eginkizuna sozialismoaren aldeko langile klasearen borrokaren batasuna babestea da, nazionalismoaren influentzia burges eta ultraatzerakoi guztiak uxatzea”.

“PRAKTIZISMOA”: BURGESIAREN INTERESEN MENPE EZARTZEA

Leninen arazo nazionalaren inguruko posizioa, nolabait esatearren, negatiboan formulaturik dago. Edozein zapalkuntza nazionalen aurka posizionatzen da, baina ez die inolako kontzesiorik egiten nazionalitate zapalduko burgesiaren eskakizun “praktikoei”; bere helburuetarako esplotatzen baititu herritarren sentimendu demokratikoak. Zapalkuntza nazionalaren aurka borrokatu bai, baina “nazio zapalduko burgesia bere nazionalismo burgesaren alde dagoen heinean, gu aurka gaude. Borroka nazio zapaltzailearen pribilegioen eta biolentzien aurka, eta inongo tolerantziarik ez nazio zapalduaren pribilegio irrikari”. Lenin nahihoa irmoa da nazionalitate zapalduko burgesiaren eskakizun “praktikoen” aurrean amore ematearen ondorioei dagokionez: “Arazo nazionalen, burgesia orok nahi ditu pribilegioak bere nazioarentzat edo abantaila eskusiboak honentzat; hain zuzen ere hori da ‘praktikoa’ izatea deitzen dena. Proletalgoa mota honetako pribilegioen aurka dago, esku-

sibismo ororen aurka. ‘Praktizismoa’ eskatzeak burgesiaren erremolkean joatea esan nahi du, oportunismoan erortzea”.

Leninek liburuan zerbait azpimarratzen badu, hori langile klaseak erabateko independentzia politikoko posizioa mantentzeko beharra da, nazionalitate zapaltzaileko nahiz zapaldukoena: “Langile klasearen interesak eta kapitalismoaren aurkako bere borroka erabateko elkartasuna eta batasunik estuena eskatzen du nazio guztietako langileen artean, edozein nazioetako burgesiaren politika nazionalista ukatzea eskatzen dute. Horregatik, langile politikaren eginkizunetatik apartatzea litzateke eta langileak burgesiaren politikaren menpe ezartzea, bai sozialdemokratik autodeterminazio eskubidea, hau da, nazio zapalduen banatzeko eskubidea ukatzen hastea, bai nazio zapalduetako burgesiaren aldarrikapen nazional guztiak babesten hastea. Soldatapeko langileari berdina zaio bere esplotatzaile nagusia burgesia errusiarra edo alogenoa den, burgesia poloniarra den edo hebrearra den, etab. Bere klaseko interesen kontzientzia hartu duen soldatapeko langileari berdina zaizkio nola kapitalista errusiarraren estatu pribilegioak hala kapitalista poloniarrek eta ukrainiarrek estatu pribilegioak ditzutenean lurrean paradisua ezartzeko egiten dituzten promesak. Kapitalismoaren garapenak aurrera jarraitzen du eta aurrera jarraituko du, modu batera edo bestera, nola estatu heterogeneo batean hala estatu nazional banatueta”. Beste paragrafo batean, modu argi batean amaitzen du: “Nazioen autodeterminazioaren arazoan, beste edozeinetan bezala, interesatzen zaiguna, ezer baino lehen eta batez ere, nazioen barnean proletarioaren autodeterminazioa da”.

Leninen liburuak abiapuntu sendo eta funtsezkoa eskaintzen du arazo nazionalari modu kontsekuenteki iraultzaile batean heltzeko egun Euskal Herrian, baita Katalunyan, Galizian eta orokorrean Estatu espainiarrean nahiz mundu mailan ere. Egia esan, pasarte askok egungo egoeran pentsatuz idatziak dirudite.

Turkia: 300 meatzari baino gehiagoren heriotzaren arduradunak Erdoganen gobernua eta monopolio kapitalistak dira

Maiatzean Somako (Turkia) meatzean izandako istripu tamalgarrian 300 meatzaritik gora hil ziren. Gertakari honek agerian utzi du erregimen turkiarraren eta berau sostengatzen duten monopolio kapitalista handien izaera kriminala.

Istripua ez zen kasualitatez gertatu: azken urteetan Garapenerako eta Justizia

Islamiarrerako Alderdiaren (AKP) gobernua aplikatu dituen murrizketa eta pribatizazioen ondorio zuzena izan zen. Meatzarien sarraskiak mobilizazio masiboak eragin ditu, gehiengoaren babesa jaso zuen greba orokor bat ere deitu zen; ondorioz, hain gorrotatua den Erdoganen gobernua kinka larrian geratu da.

ARKAITZ APARICIO

Istripu hau iragarrita zegoen heriotza baten kronika izan zen: aspaldi langileek meategietako segurtasun faltaz ohartarazi zuten, epaitegiak salaketaz beteta daude, eta Somako meatzean leherketa gertatu baino 20 egun lehenago, oposizioko alderdiek parlamentuan proposamen bat egin zuten meategietako segurtasunari buruzko ikerketa batzorde bat sortzeko eskatuz. Hala ere, gobernuan dagoen Erdogan lehen ministroaren alderdiak atzera bota zuen proposamen hau.

Soman gertatutakoa, NDFk eta Europar Batasunak bertan sartu nahi duten estatuei (Turkiaren kasua haxe da) “erreskate” eta maileguak ematearen ondorioz, estatu hauek aplikatutako herstura planen ondorio da. EBren hizkuntzan “erreformak” deitzen diren neurri drakoniano-

en atzean Turkiako meatzeen pribatizazioa dago, eta hau 2005-2010 urteen artean egin zuen turkiar gobernua.

2012az geroztik, Somako meategia Soma Komur Isletmeleri AS, Soma Holdingen filial bat da, eta Turkian dagoen ikatz ekoizlerik handiena da: Somako meate-

gitik 250.000 tona ikatz ateratzen dituzte hileko. 2012ko irailean, Soma Holdingeko jabeak harro esan zuen ekoizpen kostuak 130-140 dolarretatik (meatzeak estatuarenak zirenean hau kostatzen zen) 23,80 dolarretara murriztea lortu zuela, nahiz eta estatuari %15eko kanon bat ordaindu beharra zion; eta, halere, etekinak handitzea lortu zutela (Chicago Tribune, 2014/5/14). Baina, nola lortu dute ekoizpen kostuak %60 jaistea? Argi dago ez dela izan ikatza erauzteko teknikak modernizatzeko inbertsioak egin dituztelako. Etekinak lortzeko modua milaka langile kaleratzea, lan orduak luzatzea, esperientzia gabeko langileak azpikontratatzeta eta osasun eta segurtasun neurriekin bukatzea izan da.

Gainera, Somako meategia ez da salbuespena: Turkiako ikatz meategiak munduko arriskutsu-
netarikoak dira; jasotako ikatz to-



na bakoitzeko 7,22 hildako eragiten ditu (Txinan tonako 1,27 hildako daude). General Miners Unioneak 2010eko martxoan argitaratutako informe batek esaten duenez, Turkiako meatzeetan gertatzen diren istripuen %98a pribatizazioaren, desregulazioaren eta soldataren jaitsieren ondorio dira.

ISTRIPUAK LANGILE KLASEAREN BORROKA PIZTU ZUEN

Istripu honek Turkiako langile klasearen haserrea eta amorrua eragin zituen. Berria zabaldu zenean, milaka izan ziren Erdogan-en dimisioa eskatuz estatu guztiko kaleak bete zituztenak. Maia-tzaren 13az geroztik, egun askotan milaka lagun kalera irten ziren herrialde guztiko hainbat hiritan Erdogan-en gobernuaren dimisioa aldarrikatuz. Mersin, Antalya, Istanbul, Bosforo, Kadikay edo Ankara bezalako hirietan gehien entzuten zen oihua hurrengoa zen: “Ez da istripu bat! Ez da patua! Hau hilketa bat izan da”. Maia-tzaren 14an, lau sindikatu nagusiek deitutako greba orokorrak jarraipen masiboa izan zuen, eta bertan plazaratu zuten komunikatuak honako hau zioen: “Soman gure anaietako ehunka hil dira lan baldintza basatietan lan egitera behartuak izan ondoren, horrela enpresak etekin maximoak lortuz (...). Langile guztiei Somako gure anaiak defendatzeko deia egiten diegu”. Erdogan Turkiako lehen ministroak esandakoak haserrea areagotu besterik ez zuen egin: “horrelako istripuak uneoro gertatzen dira”, eta XIX. mendean geroztik meatzaritzan gertatutako istripu nagusiak aipatu zituen. Horregatik, ez da batere harritzekoa Soma bisitatu zuenean bertako jendeak haserre biziz bere kotea astintzea.

Erdogan da AEBk eta EBk inguru horretan duten aliatu nagusia; atzerakoi islamiar bat da.



Orain dela gutxi, Rajoy AKPre kongresuan egon zen Turkiako lehen ministroaren ondoan. Ohikoa duten moduan, potentzia inperialistek Erdogan-en izaera demokratikoa goraipatzen dute, baina go-goan eduki beharra dugu 2003az geroztik dagoen gobernuak, erabat mespretxatzen dituela eskubide demokratikoak. Erdogan-en gobernuak azken bi urteetan gorantz egin duten langile klase eta gazteriaren borrokak gogorki erreprimitu ditu; gutxiengo etnikoak, Kurduak kasu, zapaldu ditu; erlijio islamiarra egunerokotasunean inposatu du, emakumeen eskubideak eraso ditu eta interneteko zentsura ere onartu dute erregimenaren ahultasuna agerian utziz.

Duela urtebete inguru, Istanbulen Taksim parkean merkatal zentro bat eraikitzeke egitasmoak azken hamarkadetan izandako leherketa sozialik bortitzena eragin zuen; protesta gisara Taksim parkea okupatu eta berau husterakotan 10 hildako, ehunka zauritu eta milaka atxilotu eragin zituzten. Merkatal zentroaren egitasmoak gizartearen gehiengoak jasaten dituen bizi baldintza kaskarren ondorioz piztutako haserrea azaleratu zuen; haserrea leherketa sozialera bideratu zituen txinpar-ta izan zen. Nahiz eta protestak

baretu ziren, hauek sorrarazi zituen egoera sozial eta politikoak bere horretan jarraitzen dute.

Honetaz gain, duela hilabete batzuk, gobernuaren ustelkeria kasu bat agerian geratu zen, eta bertan zenbait ministro eta Erdogan beraren semeak inplikaturik zeuden. Erregimenak, beste behin ere, mendealdean hainbeste goraipatzen duen izaera demokratikoa erakutsiz jokatu zuen: nahiz eta frogak egon Erdogan eta bere lagunak inkrimintatzeko, honek dena konplot internazional bat zela esan zuen eta ustelkeria kasuak, kontrabandoa, banda mafioso eta antzekoak ikertzen zituzten 2000 polizia inguru aldatu zituen. Beste horrenbeste egin zuen fiskal guztiekin, eta hauek bere inguruko batzuekin ordezkatu zituen, kasua itxi eta Erdogan eta bere konplizeak kalterik gabe ateratzeko asmoz.

Ondoren, Somako istripua izan zen jendearen pazientziarekin amaitu zuena: Turkiako langile klase eta gazteriak ekintzara pasatzea erabaki zuen; eta, horrela, 12 urtez eskubide demokratikoak eta langileen bizi baldintzak eraso eta enpresa handi nazional eta multinazionalak aberastera bideratutako pribatizazio politika aurrera eramanez duen AKPre gobernuak garaitzea posible dela erakutsi zuten.

Euskal Herria: Felipe VI.aren erregimenaren aurkako borroka sozialismoarekin lotuta dago

ARTIKULU HAU KONTRAPORTADAN HASTEN DA errepublikarraren bidez ere (Estatu frantziarrean, Portugalen edo AEBetan bezala) gizartea dominatzen eta langile klasea zapaltzen jarrai dezaketela, baina, aldi berean, ondo dakite gaur egungo testuinguru politikoan monarkiaren erorketak ondorio politiko ezegonkorrak eragingo lituzkeela. Hauekako bat kaleko borrokaren gorakada litzateke 1931ko apirilean gertatu zen bezala, monarkiaren erorketak langileen eta gazteen borroka grina hauspotuko bailuke krisi iraultzailea sortzeko aukerarekin.

KAPITALISMOA DEFENDATZEKO INSTITUZIOA

Hala ere, ez da nahikoa errepublika monarkia baino aurrerakoia goa dela esatearekin. Euskal Herriak eta Estatuko beste herriek benetako aldaketa sakona, demokrazia eta justizia soziala eskuratzeko eta Kataluniak, Galiziak eta gure herriak askatasun nazionala lortzeko, beharrezkoa da monarkiaren aurkako borroka kapitalismoaren aurkako borrokarekin lotzea.

Kapitalistentzat hau da demokrazia (monarkia edo errepublika izan): lau urtean behin herritarrek bozka dezakete, parlamentuetan parlamentariak hitz egin eta eztabaida dezakete, baina neurri garrantzitsuenen erabakiak estatu espainiarreko ehun familia aberatsenek hartuko dituzte, eta hauek ez dute, noski, inolako kontrol demokratikorik eta ez dituzte herritarrek aukeratu. Zeren bitartez hartzen dituzte erabakiak ehun familia hauek? Beren botere

ekonomikoaren bidez, hau da, “demokrazia” burgesaren bitartez. Botere honek zehazten ditu hauteskunde kanpainak, erosten ditu alderdiak, diputatuak, komunikabideak, ideologoak eta “krisitik ateratzeko” kontrarreforma gehiago eskatzen dituzten pertsona “independenteak”.

Demokrazia burgesa ustelkeriarako diseinatuta dago, herritarren subiranotasuna suntsitzeko, kapital handiaren interesak defendatzeko. Goi mailako funtzionarioek eta diputatuek soldata milioiunak dituzte. “Boterea ukitzen” duten “herritarren ordezkari” gehienek bermatuta dute luxuzko bizitza. Herritarren interesekin zerikusirik ez duten baldintza materialak dituzte eta lotura sendoak egiten dituzte beren bizitza modua bermatzen duten elite ekonomikoarekin. Honek esan nahi du politikari guztiak berdinak direla? Ez, noski. Baina, langileen interesak defendatzeko asmoa duten alderdiek edo politikariek gehiengo lortzen badute “demokra-

zia kapitalistak” beste mekanismo batzuk erabiltzen ditu: kapital handiari interesatzen ez zaizkion legeak inpugnatu eta izoztu daitezke justiziaren bidez (hau ere kontrol demokratikorik gabekoa) edo eguneroko praktikan mota guztietako trabak jar ditzakete; eta hau nahikoa ez bada, polizia eta ejertzitza bezalako mekanismoak erabil ditzakete (diktadura frankistatik inolako depurazioarik izan ez dutenak).

Honek esan nahi du ez dela posible kapitalisten erresistentziari aurre egitea? Ez, noski. Langileok, gehiengo soziala garenok eta ekonomian oinarritzko papera jokatzen dugunok, antolatuta bagaude eta ideiak argi baditugu garaitezina gara. Marxismoak dioena da esku-bide demokratikoen defentsak (nazionalak, sozialak...) “demokrazia” kapitalistaren mekanismoen haustura inplikatzeko duela. Hau da, banka eta enpresa handiak gutxiengo baten eskuetan badaude ez da posible benetako eraldaketa soziala. Horregatik, kapita-



lismoarekin amaituko duen alternatiba behar dugu langile eta gazteok: alternatiba sozialista.

NOLAKO SOZIALISMOA BEHAR DUGU?

Banka eta monopolio handi estrategiko guztiak desjabetu behar dira langileen kontrolpe demokratikopean. Horrela bakarrik buka daiteke botere ekonomikoaren inposaketekin. Ekoizteko baliabide guztiak inbertsio publikoko plan bat bermatzeko erabili ahalko lirarteke kalitatezko hezkuntza eta osasun publiko doako eta unibertselean; herri eta auzoetako baliabide sozialetan; industriaren eta nekazaritzaren garapenean langabeziarekin amaitzeko. Bankuen jabetzan dauden etxebizitza hutusak alokairu merkeekin erabili ahalko lirarteke etxebizitzaren arazoarekin amaituz. Zein arazo egongo litzateke, ekonomiaren funtzionamenduaren ikuspuntutik, neurri hauek hartzeko? Bat bera ere ez, bankarien eta enpresari handiek irabazi lotsagarriak izan ezik.

Bukaera jarriko litzaioke diru publikoa “zorrak” ordaintzeko eta bankuak erreskatatzeko erabiltzeari. Hezkuntza publikoak, osasun publikoak eta zerbitzu sozial duinek (langabezia, pentsioak, dependentzia...) lehentasuna izango lukete. Langileek sortutakoa den diru publikoa ez litzateke erabiliko espekulatzailen poltsikoak puzteko.

Ordezkarri politiko guztiek edozein unetan aukeragarriak eta kenegarriak izan beharko lukete. Parlamentari, zinegotzi edo funtzionario politiko batek ez luke (zuzenean edo zeharka) langile kualifikatu batek baino soldata altuagoa kobratu behar. Eginkizun administratiboek txandakakoak izan beharko lukete. Beharrezkoa litzateke administrazioko eremu guztietan langileen kontrol demokratikoa egotea hauek ordezkatzen dituen erakundeen bitartez.



Neurri hauen eta autodeterminazio eskubidearen defentsa eginenez eta Europako Federazio Sozialistaren alde borrokatuz posible izango litzateke Euskal Herri aske eta sozialista eraikitzea. Alternatiba sozialista hau, jendea “ikaratzetik” urrun, baliabide onena izango litzateke burgesia ideologikoki eta politikoki isolatzeko, gizarteko sektore zapalduak aldaketa sozialaren aldeko programa baten inguruan biltzeko, hurrengo hauteskundeetan EAJ eta UPN garaitzeko eta burgesiaren aurkako erasoaldiaren aldeko baldintza onenak sortzeko.

EZIN DITUGU IRAGANEKO AKATSAK ERREPIKATU

Burgesiarekin akordioa bilatzearen bidea, politika egiteko modu berri bat izatetik urrun, erreformismo sozialdemokrataren aspaldiko programa da, gaizki deitutako Trantsizioa delakoan gailendu zena hain zuzen. Sozialdemokraziaren krisiaren eta gainbeheraren ikasgai nagusia horixe da hain juxtu: ez dago erdibiderik kapitalismoaren eta sozialismoaren artean, burgesiaren eta langile klasearen artean. Garapen historikoaren gaur egungo bere fasean, kapitalismoaren ezaugarriak kapital finantzarioaren eta monopolioaren dominazioa, honen gose suntsitzailea eta espekulazioaren kaosa dira. Ez dago beste kapitalismo posiblerik.

Eskubide demokratiko nazional, sozial edo politikoen defentsa ez bada sozialismoaren aldeko borrokarekin lotzen, lehendabizi erdibideko etapa bat behar dugunaren argudioa erabiliz, orduan Trantsizio garaian PSOEko eta PCEko agintariek egindako akatsak errepikatuko dira. “Ezkerreko” agintari hauek burgesiarekin egindako akordioak badakigu zer ekarri zuen: frankismoaren oinordekoa zen Juan Carlos I.aren erregimena. Bankaren eta enpresari handien boterearekin ez bada amaitzen, frustrazioa zabalduko litzateke beste behin gizartean eta egoera honek abantaila emango liekete burgesiari eta erreakzioari.

Sistema kapitalistaren aurkako borroka erabakigarria antolatzeak aukera historikoaren aurrean gaudela. Iraganeko akatsetatik ikasten badugu, garaipena lortzeko aukera izango dugu. Programa eta estrategia iraultzaile eta sozialista defendatzea beharrezkoa dela uste dugun langile eta gazteok antolatzen jarraitu behar dugu. Sozialismoa beharrezkoa da baina ez da zerutik eroriko. Langile klasearen ekintza kontzientearen ondorioa izango da. Euskal Herria Sozialista aldizkariaren bitartez ideia hauek defendatzen ditugu egunero langile mugimenduaren eta ikasle mugimenduaren borroketan parte hartuz. Parte har ezazu gurekin beharrezkoena den eta gehien merezi duen eginkizunean: gizartearen eraldaketa sozialistan.

Euskal Herria:

Felipe VI.aren erregimenaren aurkako borroka sozialismoarekin lotuta dago

PPk eta PSOEek maiatzaren 25eko Europako hauteskundeetan jasotako emaitza kaxkarrek eta Juan Carlos I.aren abdikazioaren ondoren izandako manifestazio jendetsuek egoera politikoan inflexio puntua markatzen dute. Trantsizio garaitik kapitalista handiek erabilitako zutabeen krisia bizkortu dute, eta garrantzitsuena dena, eraldaketa politiko, ekonomiko eta soziala posible denaren ideia zabaldu dute. Egoera honek gero eta langile eta gazte gehiago eramango ditu borroka politiko antolatuan parte hartzera.



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

A skotan entzun behar izan dugu monarkiak demokrazia ekarri zuela eta Juan Carlos I.ak 1981eko otsailaren 23ko estatu kolpea geratu zuela. Hau egundoko gezurra da, noski. Eskubide demokratikoak langile klasearen borrokari esker bakarrik lortu dira, eta ehunka hildakorekin, kartzelaraturekin eta torturarekin ordaindu dira gainera. "Te-

jeroren" estatu kolpea ez zuen monarkiak geratu, burgesiak langileen eta gazteriaren erantzun iraultzaileari zion beldurra baizik.

Monarkia instituzio atzerakoa da. Horregatik, honen abolizioa eta honi buruzko erreferenduma aldarrikapen aurrerakoiak dira. Monarkia frankismoaren oinordeko zuzena da, oligarkia finantzario eta enpresarialarekin bat eginda dago eta burgesiaren instrumentu bat gehiago da langile klasea eta

Euskal Herria zapaltzen jarraitzeko. Ez da instituzio neutral bat. Monarkiak legeak eta dekretuak onartzeko ahalmena, ejertzitoko burua izateko boterea eta Madrilgo Kongresua disolbatzeko aukera ditu. Bere erabakiek ez dute inolako kontrol demokratikorik.

Horregatik, sistemaren defendatzaileek arrazoi asko dituzte monarkia mantendu nahi izateko. Kapitalistek badakite sistema

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun lezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

**JARRI HARREMANETAN: euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
www.euskalherriasozialista.net**

**EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun lezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du**

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista